

## **Soldadogoa Marokon**

E.: seurro ba. Eta, beraz, Marokan izan xinden soldadoka?

M.: ba, ba.

E.: soldadokan. Ta hua nola pastu zuxun?

M.: ba, untsa. Ganberan baginen hameka, frantses bat eta hamar hango, marrokano, hara! Ordian ez dut erten aal gaxtoak ziela, izan ala onak zien, salbu zien denak, ordukotz, zazpi-zortzi urte armadan zien, frantses armadan, ta garbiak-eta, eh!

E.: zer, nola?

M.: garbiak, baizu, garbiak. Ni eta jaikitzen nintzan, joiten duzu kleronaikin, baizu, olako orenian, na hek lehen jaikiak zien, eh! Ordukotz ganbara guziak garbituik, kafiak edanik jarriak zien ek, bena ez zinduzten iatzarrazten ordian bezik. Caporal-chefa ono hetaik zen, eta ganbarako chefa, alo, eta ordian iatzarraazten nindien arek, ene ohia in azpiak eta denak garbitiak zien orduko.

E.: ba, eh? gero zonbaitek erten dixie zikin direla, bena garbi zitxun!

M.: garbiak zien, hek garbiak, ba, ba.

E.: hameka presuna ganbera atian, bazukexun han kurrunka hotsa.

M.: ba, adin artan ez zu kasu iten lokartuz geoz.

E.: fite lokartzen zinezten?

M.: ba, ba, ba, ba. Bo, bena ala, leen egunetan iten duzu “ez dakit zer dien ok”, tu parles, tiens! Mutiko, alo, gizon xarmantak zien, na caporal-chefa ua zen gaztena, beste guziek bazuten adina, eh! Hua hamalau urtetan gezurra erranez hamasei urte zitiela engaiatia zen.

E.: ah ba?

M.: ba, ta ez zuten kasu iten, ta gero zen oartu konpañiako lieutenanta “ua, ez dik adinik”, ta eakutsi... Hartu zien bere ordenanza gisa, baizu, gazte ua, pen inik, na tu parles, harek... Haren maztiak eakutsi zakon, eta frantsesez leitzen ta guziak, ta mutiko xarmant bat in zien, ta araba, salbu arabak zien geientsiak orik mendian eskapatiak, baizu, araber, han erten da ta les berberes.

E.: ba.

M.: berberak eta zien lehen Marrokako jendiak, ta gero bestiak arribatu zielarik, orik menditaa joan zien, gizon sanogoak dira aisa, eh!

E.: ezautu xintien bereberrak?

M.: ah ba, ba, ba, ta heekilan ginen, geientsiak, hamarretaik seurro re zazpi bazien berberrak, oui, oui, ba, ba, mendiko gizonak.

E.: eta horiek ere ukain zuzten berdin ez zien ber usaiak, bena ardiekila ta kaalekila usaiak ta...

M.: ah ba, ba, ba, kaalekila zien anitzen familiak, ah ba, ta caporal-chefa ua joaiten bazen permisionez, gero jandarmek bear zuten xeka joan, ez zen etxetik partitzen a... Bixtan dena, baizu, gartzian... Haur-aurra joan zen armada, bena geo familiako... Ua goxatzen zen an, ezin partitia, ta gero, bixtan dena, lieutenantak barkatzen zakon, bana hein bat, zartzen zien punituik bere gisan, baizu, geo guardia inazten zakon, ta ola, oui, oui, na gero, ta horik e bear baitzuten, baizu, permisa galditen zutelarik, permisionia gau erdi artio, edo baizu, bear baita atezteko ta geo berriz sartzeko, tapaperrak prest zien bena hek bear zitin garnitu, beren matricule numeroak eta sartzeko, ordian, hara, arduenian nik iten nien ua, caporal-chef arek iten zien bere doia, benan bestek ez zakiten frantsesain ixkiatzen, ta hortan launtzen zitien, ta geo, uh.

E.: han frantsesez mintzatuko zinezten, ez?

M.: ah ba, ba, ba, frantsesa iten zuten untsaxko, eh! Ez, to! Eta ez zu ikusten Frantziako armadan sartu zien, eta delako aleman...ameikanoak debergatu zien bezan fite, ta geo ikasi zuten, ta oriek ina zuten kanpaña guzia, eta baizu, alemanak beren etxean sartu artio, alo, ta anitzak han egonak zien okupazionian, ta jin... Berriz giileat eldu zien, hola ezautu gintien adinetako gizonak, baziren tambourlariak-eta xarmantak, gu loriatzen ginen: “noiz ari iz?” eta “amabi urte untan” (irriak), ordian ikasia zuten, ba, tambourra joiten.

E.: ah ba?

M.: onak, eh!

E.: ah ba, eh?

M.: ba, ba, ba.

E.: gero han ba... Deser... Desertia ez zukexun, bena bero inen zixin, ez? Marokan.

M.: ah, bero ba, gero uda bat duu pasatu, ta hua guk mendian pastu ginien, sei-zazpieun metra gora, ordian, hara, ez zen hain bero. Gero jautsi ginelaik, alta, zen zitinbria, benan ordian, bo, moztikoak eta bazien, jaten zinduzten.

E.: denak botioñez betiak, eh!

M.: gure mendiaz pena ginien, eh, alta, han karpen pian ginien, eh! Karpa audien pian, benan hirian moskitoak, puf!

E.: ta, beraz, zer zuxun, aski menditsu? Menditsu zuxun?

M.: ba, gu ginen tokia ba, hori Taza zen hiri ttipi bat, Moyenne-Atlasean, bauzu eta Moyenne Atlas, eta gero Haute-Atlas gero, mendi gorak giilo, gu Moyenne-Atlas, benan jaanik, mendian ginen, alo, oui, oui.

E.: so ixu, beraz, kurritu xira, eh! Kotsia, eh! Marroka...

M.: in nien hameka ilaite xerbitxu.

E.: hameka hilaite.

M.: ba, ba, gero Algeria ta in dutenek in dute hiru urte ta ola, horiek.

E.: gerlan.

M.: ba araiz.

E.: ziek ez zinuten han lanjerrik ukhain soldadokan.

M.: ez, ordian ez, bazen baño gordia mendian, omen, eta munizione askiekin, ta ez zezaketen atxeman. Gu hunat partitzeko mementoan, eh! Hola, voilà.

E.: beraz, lasai izan zirezte.

M.: ba, ba.

E.: armen erabiltzen ikhasi ta fini.

M.: arma hutsak (irriak), guardia iten ginien arma utsaekin (irriak), ordian lanjerra izanez e, araiz, ukain gintien balak, benan ez zen... Bakia zen.

E.: ba, ba, ados.

M.: oui, oui. Gero asi zen fite gu hantik partitu-ta, oui, oui.

E.: untsa, beraz, hemen, gero Marokan, gero Ameriketan, eta gero berritz ere hunat.

M.: ah ba, toki xaarreat berriz.

#### **Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala